

Kalkula ezazu buruz eskuineko datu-banaketaren batezbesteko aritmetikoa:

1/ Banaketa: 3,3,6,6,9,9

- a) 3 b) 6
c) 9 d) 6,5

Kalkulurik bat ere egin gabe esan hurrengo banaketetako zeinek duen batez besteko desbiderapen handiagoa.

2/ Banaketak:

- a) 4,5,4,5,4,5 b) 1,8,1,8,1,8
c) 1,1,1,9,9 d) 1,2,3,4,5,6,

Osatu taula eta gero kalkulatu hurrengo banaketaren batez besteko desbiderapena: 3,4,6,3,8

x	Desbiderapena
3	-1,8
4	-0,8
6
3
8

$$X_m = 24/5 = 4,8$$

3/

- a) 2,3
b) 1,67
c) 1,76
d) 2,1

Banaketa baten bariantza 2 bada, zein balio du desbiderapen tipikoak?

4/

- a) 4 b) 1,41
c) 1,7 d) 2

Esan baieztapen hauetako zein den egiazkoa, bat bakarrik da

5/

- a) Bariantza zenbat eta handiagoa izan orduan eta hurbilago daude banaketaren balio gehienak batezbestekotik.
b) Bariantza zenbat eta txikiagoa izan orduan eta hurbilago daude banaketaren balio gehienak batezbestekotik.
c) Bariantzaren balioa ez dago lotuta banaketaren balioak batezbestekotik hurbilago edo urrunago egotearekin.
d) Batezbesteko bera duten bi banaketek bariantza bera ere badute.

Geo-klima eta ingurumena

Kalkula ezazu buruz hurrengo banaketaren batez besteko desbiderapena: 4,4,4,4,4

6/

- a) 4 b) 2
c) 3 d) 0

Hurrengo banaketan balio bat falta da. Banaketa osoaren batez besteko desbiderapena 1 da. Zein da falta den balioa?

3,3,3,5,5,

7/

- a) 1 b) 5
c) 3 d) 4

Osatu taula eta gero erantzun hurrengoei:

"x" aldagaiaren balioa da

"f" horren maiztasuna

"xm" batezbesteko aritmetikoa

"d" batezbestekoari lotutako desbiderapena

"N" banaketaren osagai kopuru osoa

"Dm" batez besteko desbiderapena

Biribildu kalkuluak bi hamartarrekin

x	f	f.x	d	f.d
3	2	6		
4	1	4		
5	3	15		
6	2	12		
	N=	xm =.....		Dm =.....

8) xm-ren balioa honakoa da:

- a) 4,63 b) 3,45
c) 3 d) 3,55

9/ Modaren balioa honakoa da:

- a) 6 b) 3
c) 8 d) 5

10/ Batez besteko desbiderapena hauxe da:

- a) 0,87 b) 1,81
c) 0,77 d) 0,67



Geo-klima eta ingurumena

Testaren zuzenketa:

- 10.p
- 9.d
- 8.a
- 7.b
- 6.d
- 5.b
- 4.c
- 3.c
- 2.a
- 1.b